



24 Emakume— —Mujeres Femmes—

Zientzia, arte eta letretan

En las ciencias, artes y letras

En sciences, arts et lettres



24 Emakume zientzian, artean eta letretan erakusketarekin bat eginez hiru solasaldi antolatu ditu Jakiundek San Telmo Museoarekin elkarlanean.

Erakusketan aurkezten diren hainbat emakumezko jakitunek ibilbide profesional luzea egin eta gero bikaintasuna lortu dute beren diziplinetan, eta beste emakumezko jakitun gazteago batzuk punta-puntako lana egiten ari dira beren labideetan.

Con motivo de la exposición **24 Mujeres en las ciencias, artes y letras**, Jakiunde ha organizado tres coloquios en colaboración con San Telmo Museoa.

La exposición presenta a académicas que tras una dilatada carrera profesional han logrado la excelencia en sus respectivas disciplinas, así como a académicas más jóvenes que desarrollan una labor puntera en su profesión.



MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

araba **álava**
foru aldundia diputación foral

LABORAL
kutxa



EU

Jakiunde jakintzaren eta esperientziaren topaleku da, eta arlo ezberdinetako aditu diren kideen talentua eta hausnarketarako ahalmena gizartearen eskura jartzea du helburu. Zientziak, Arteak eta Letrak lantzeko eta sustatzeko jarduerak antolatzen ditu Akademiak. Jakintza eta zorrotasun zientifikoa gizartearen esku jarritz, haren eragile aktibo izan nahi du, egungo arazoei eta erronkei irtenbideak bilatzen lagunduz.

Egungo erronketako bat da emakumeek jakintzaren arloetan egiten duten lana ikusezin bihurtzen duten gizarte-ohiturak gainditzea. Neska-mutilek edozein diziplinatan aukeraberdintasunean ikasi eta lan egin dezaten, gure gizarteak emakumeek bizitzako arlo guztietan duten presentzia ezagutu eta ikusarazi behar du. Emakumeak ari dira zientzietan, arteetan eta letretan, eta egiten duten lanarekin gozatzen dute.

24 Emakume zientzian, artean eta letretan ekimenaren helburua da gizarteari errealitate hori erakustea eta etorkizuneko belaunaldiak inspiratzea. Koaderno honetan aurkeztzen diren hainbat emakumezko jakitunek ibilbide profesional luzea egin eta gero bikaintasuna lortu dute beren diziplinetan, eta beste emakumezko jakitun gazteago batzuk punta-puntako lana egiten ari dira beren lanbideetan.

ES

Jakiunde es un lugar de encuentro del conocimiento y la experiencia, y pone a disposición de la sociedad el talento y potencial de reflexión de sus miembros, expertos en áreas diversas. La Academia desarrolla actividades para el cultivo y promoción de las Ciencias, las Artes y las Letras. Por su rigor científico, desea contribuir con su acciones y dictámenes a la búsqueda de soluciones adecuadas a los problemas y retos actuales.

Uno de los retos actuales radica en superar los hábitos sociales que invisibilizan la labor de las mujeres en áreas del saber fundamentales en el avance de nuestra sociedad. Para que chicas y chicos accedan en igualdad de condiciones al conocimiento y a la práctica laboral en cualquier disciplina, nuestra sociedad necesita conocer y visibilizar la presencia de las mujeres en todas las áreas de la vida. Las mujeres trabajan, contribuyen y disfrutan de su labor en las ciencias, las artes y las letras.

El objetivo de la iniciativa **24 Mujeres en las ciencias, artes y letras** es mostrar esta realidad a la sociedad e inspirar a las futuras generaciones. El cuaderno presenta a académicas que tras una dilatada carrera profesional han logrado la excelencia en sus respectivas disciplinas, así como a aquellas académicas más jóvenes que desarrollan una labor puntera en su profesión.

FR

Jakiunde est un lieu de rencontre entre connaissance et expérience et elle met à disposition de la société le talent et le potentiel de réflexion de ses membres, experts dans de nombreux domaines. L'Académie réalise des activités pour développer et promouvoir les Sciences, les Arts et les Lettres. Par sa rigueur scientifique et ses connaissances, elle entend servir de guide et contribuer par ses actions et ses opinions à la recherche de solutions bien adaptées aux problèmes et défis contemporains.

L'un des défis actuels consiste à surmonter les habitudes sociales qui rendent invisible le travail des femmes dans des domaines de la connaissance fondamentaux dans l'avancée de notre société. Pour que les filles et les garçons aient un accès égal aux connaissances et à la pratique de travail dans n'importe quelle discipline, notre société a besoin de connaître et de rendre visible la présence des femmes dans tous les domaines. Les femmes travaillent, contribuent et apprécient leur travail dans les domaines des sciences, des arts, et des lettres.

L'objectif du cahier **24 Femmes dans les sciences, les arts et les lettres** est de montrer cette réalité à la société et d'inspirer les générations futures. Le cahier présente des femmes académiciennes qui, après une longue carrière professionnelle, ont atteint l'excellence dans leurs disciplines respectives, ainsi que des académiciennes plus jeunes qui effectuent des travaux de pointe dans leur profession.



Itziar Alkorta Idiakez



EU

UPV/EHUko UIK - Udako Ikastaroen zuzendaria, Zuzenbide Zibileko irakasle titularra.

Ezagutza gizarteratzearen aldeko konpromisoa.

Nire ibilbide akademikoan ezagutzaren aldeko apustua egin dut; UPV/EHUko irakasle moduan, zuzenbide zibilaren oinarriak azalduz, Uda Ikastaroen zuzendari moduan, ezagutza gizarteratzeko ahaleginean eta baita ikertzaile moduan ere, egungo gizarte teknologizatuaren gaineko erronka juridikoak aztertuz.

ES

Directora Cursos de Verano - UIK; profesora titular Derecho Civil, UPV/EHU.

El compromiso de socializar el conocimiento.

He apostado por el conocimiento en toda mi trayectoria académica; como profesora de Derecho Civil de la UPV/EHU, desde los Cursos de Verano, socializando el conocimiento, y también como investigadora, analizando los retos jurídicos que plantea una sociedad tan tecnologizada como la nuestra.

FR

Directrice des Cours d'été - UIK, maîtresse de conférences en droit privé, Université du Pays Basque.

S'engager pour socialiser la connaissance.

Tout au long de mon parcours universitaire, j'ai misé sur la connaissance ; en tant que professeure de droit civil à l'Université du Pays Basque (UPV/EHU), dans le cadre des cours d'été, en socialisant les connaissances, mais aussi en tant que chercheuse, en analysant les enjeux juridiques qu'engendre une société aussi technologisée que la nôtre.



Nora Alonso Casajús



EU

Biologian doktorea, DnA Advisory Services-eko bazkidea.

Ausartu eta aprobetxatu aukera berriak, segi ikasten eta bidearen bihurguneekin gozatzen.

Bai ikerketa eta baita enpresa teknologikoetatik nekazaritzaren eta elikaduraren sektorerako jakintzaren transferentzia ere funtsezkoak dira sektoreak dauzkan erronkei aurre egiteko: eskuragarri dauden baliabideak gutxiago erabilitzea eta ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik modu jasangarrian gehiago ekoiztea.

ES

Dra. en Biología, Socia de DnA Advisory Services.

Atrévete a aprovechar las nuevas oportunidades y no dejes de aprender y disfrutar de las curvas del camino.


La investigación y la transferencia de conocimiento desde las empresas tecnológicas al sector agroalimentario es clave para encarar los retos a los que se enfrenta el sector: producir más con menos recursos disponibles y de forma sostenible desde el punto de vista medioambiental, social y económico.

FR

Docteure en Biologie. Associée de DnA Advisory Services.

Osez profiter des nouvelles opportunités et ne cessez pas d'apprendre et de tirer profit des méandres du chemin.

La recherche et le transfert de connaissances des entreprises technologiques vers le secteur agroalimentaire sont essentiels pour relever les défis auxquels le secteur est confronté : produire plus avec moins de ressources disponibles et de manière durable d'un point de vue environnemental, social et économique.



Alicia Alonso Izquierdo



EU

UPV/EHUko Biokimika eta Biologia
Molekularreko katedraduna.

Ikertu eta irakatsi egiten dut, eta irakatsi ere egiten didate. Inoiz ez diot galderak egiteari uzten. Jakin-nahiak ez du katua hiltzen, gure ezagutza bulzatu baizik.

Jakin-mina da zientzialarion ezaugarri nagusia. Etengabe ari gara gure buruari galdezka, baina ez gara berehalako erantzunen zain geratzen, erantzunaren bilaketari ekiten diogu. Eta, bide horretan aurrera, beste zalantza batzuk sortzen dira. Horrela egiten dugu zientzia.

ES

Catedrática Bioquímica y Biología Molecular,
UPV/EHU.

Investigo, enseño, y también me enseñan. Nunca dejo de hacerme preguntas. La curiosidad no mata al gato, impulsa nuestro conocimiento.

La principal característica de las científicas y los científicos es la curiosidad. Nos planteamos cuestiones continuamente, pero sin esperar obtener respuestas inmediatas. En el camino de la búsqueda de la respuesta, abrimos la brecha a otras nuevas incógnitas. Así hacemos la ciencia.

FR

Professeure d'université en Biochimie et
Biologie moléculaire, Université du Pays
Basque.

Je cherche, j'enseigne mais on m'enseigne aussi. Je n'arrête jamais de me poser des questions. La curiosité n'est pas un vilain défaut, elle stimule nos connaissances.

La principale caractéristique des scientifiques est la curiosité. Nous nous posons continuellement des questions, mais sans espérer obtenir des réponses immédiates. Sur le chemin qui cherche la réponse, nous ouvrons la voie à de nouvelles inconnues. Voilà comment nous faisons de la science.



Maite Apezteguía Elzo



EU

Arkitektoa.

ES

Arquitecta.

FR

Architecte.

Espezialitateen mundu honetan, arkitektoak “espezialistak ez izaten” espezialistak gara.

Arkitektura mundua eraldatzeko aukerak aurkitzean datza. Gizakion bizitza hobeia izan dadin, ingurunea aldatzeko aukerak topatzean datza. Niretzat, formen bitartez hitz egiteko eta ideien bitartez posizionatzeko modu bat da arkitektura.

En este mundo de especialidades, los arquitectos somos especialistas en “no ser especialistas”.

La arquitectura brinda la oportunidad de descubrir las posibilidades de transformar el mundo, de cambiar el medio para que la vida de las personas sea mejor. Para mí la arquitectura es hablar a través de las formas y posicionarme a través de las ideas.

Dans ce monde de spécialités, nous architectes, notre spécialité est de «ne pas être spécialistes ».

L'architecture offre l'opportunité de découvrir les possibilités de transformer le monde, de changer l'environnement pour améliorer la vie des gens. Pour moi, l'architecture, c'est parler à travers les formes et se positionner à travers les idées.



Maribel Arriortua Marcaida



EU

Kimikaria. UPV/EHUko Kristalografia eta mineralogia katedradun emeritua.

Kristalografia eta kristal zoragarriak aliatu garrantzitsuak izan dira atomoetan barrena egin dudana bidaia liluragarrian.

Kristalografia eta kristalak dira nire pasioa. Kristalez inguratuta gaude gure eguneroko bizitzan. Liluragarriak dira kanpoko edertasunagatik, simetriagatik, formengatik eta kolore ederrengatik. Baina, batez ere, bere simetriagatik eta egitura kristalinoagatik, espazioaren hiru norabideetan kristala osatzen duten atomoen kokapenaren eta ordenamenduaren berri ematen baitigu. Ezagutza hori oso garrantzitsua da, haren propietateak eta aplikazioak haren mende baitaude.

ES

Catedrática emérita de Cristalografía y Mineralogía, UPV/EHU.

La Cristalografía y los maravillosos cristales, aliados importantes en mi apasionante viaje a través de los átomos.

La Cristalografía y los cristales son mi pasión. Estamos rodeados de cristales en nuestra vida cotidiana. Son fascinantes por su belleza exterior, sus formas y hermosos colores. Pero sobre todo por su simetría y su estructura cristalina, que nos informan de la posición y el ordenamiento de los átomos que constituyen el cristal en las tres direcciones del espacio. Este conocimiento es muy importante, porque sus propiedades y aplicaciones son dependientes del mismo.

FR

Professeure d'université émérite en Cristallographie, Université du Pays Basque.

La cristallographie et les merveilleux cristaux sont de précieux alliés dans mon passionnant voyage à travers les atomes.

La cristallographie et les cristaux sont ma passion. Nous sommes entourés de cristaux dans notre vie quotidienne. Ils fascinent par leur beauté extérieure, leurs formes et leurs belles couleurs. Mais surtout à cause de leur symétrie et de leur structure cristalline, qui nous renseignent sur la position et la disposition des atomes qui composent le cristal dans les trois directions de l'espace. Cette connaissance est très importante, car ses propriétés et ses applications en dépendent.



Itziar Astiasaran Antxia



EUS

Nafarroako Unibertsitateko Nutrizio eta Bromatologia arloko katedraduna; Jakiundeko lehendakariordea.

ESP

Catedrática Área Nutrición y Bromatología, Universidad de Navarra; vicepresidenta de Jakiunde.

FRA

Professeure d'université Département Nutrition et Bromatologie, Université de Navarre ; vice-présidente de Jakiunde.

Bizitzak atek irekitzen dizkizu, ez itzazu zuk itxi.

Etika izan dadila zure ambizio zientifikoaren muga bakarra.

La vida te va abriendo puertas, no seas tú quien las cierre.

Que la ética sea el único límite a tu ambición científica.

La vie vous ouvre des portes, que ce ne soit pas vous qui les fermiez.

Que l'éthique soit la seule limite à votre ambition scientifique.



Lourdes Basabe-Desmots



EUS

Ikerbasque ikerketa-irakaslea, UPV/EHUko Mikrofluidika Klusterreko zuzendaria, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Asmatzeko, sortzeko era aurkitzeko pasioa da nire gidari. Mikro eta nanoteknologia konbinatuz ikerketa ibilbide berriak zabaltzen ditugu.

Kimika Zientzietako ikasketak hasi nituenetik, ikerketa-karrerak munduan zehar ibiltzera eta berrikuntzaz goatzera eramán nau. Orain, UPV/EHU, Gasteizen, "Laborategia Txip batean" eta "Organoa Txip batean" gailuak garatzen ditut, osasuna hobetzen eta aurrerapen zientifikoak lortzen laguntzeko.

ESP

Profesora de investigación Ikerbasque, Directora Clúster de Microfluídica UPV/EHU, Universidad del País Vasco.

Me guía la pasión por inventar, crear y descubrir. Combinando micro y nanotecnología abrimos nuevas avenidas en la investigación.

Desde que comencé mis estudios en Ciencias Químicas, la carrera investigadora me ha llevado a recorrer el mundo y a disfrutar de la innovación. Ahora en la UPV/EHU en Vitoria-Gasteiz desarrollo dispositivos "Laboratorio en un Chip" y "Órgano en un Chip" para contribuir a la mejora de la salud y al progreso científico.

FRA

Enseignante-chercheuse Ikerbasque, Directrice du Cluster de Microfluidique UPV/EHU, Université du Pays Basque.

Je suis guidée par la passion d'inventer, de créer et de découvrir. En combinant micro et nanotechnologie, nous ouvrons de nouvelles voies dans la recherche.

Depuis que j'ai commencé mes études en sciences chimiques, ma carrière de chercheuse m'a amenée à parcourir le monde et à apprécier l'innovation. Actuellement à l'université UPV/EHU de Vitoria-Gasteiz, je développe des dispositifs "Laboratoire sur puce" et "Organe sur puce" pour contribuer à l'amélioration de la santé et au progrès scientifique.



María Bayo



EU

Abeslari lirikoa. Valentziako Centre de Perfeccionament del Palau de les Arts-eko zuzendaria eta ahots eta musika aholkularia.

Musikarik eta arterik gabe, bizitza errore bat litzateke. Musikarekin hazi naiz, artista eta gizaki gisa.

Zoriontsu sentitzen naiz ia berrogei urteko ikaskuntza etorkizuneko abeslari profesionalei transmititzeko gai naizelako. Erronka garrantzitsua da ikasi dudan guztia eman ahal izatea eta musika klasikoaren esentziaren lekukoa belaunaldi berriei pasatzea.

ES

Cantante lírica. Directora y asesora vocal y musical del Centro de Perfeccionamiento del Palau de les Arts de Valencia.

Sin música y sin arte la vida sería un error. Con la música he crecido como artista y como ser humano.

Me siento feliz al poder transmitir el aprendizaje de casi cuarenta años a futuros cantantes profesionales. Es un reto importante poder aportar todo lo que he aprendido y pasar el testigo de la esencia de la música clásica a las nuevas generaciones.

FR

Artiste lyrique. Directrice et conseillère vocale et musicale du Centre de perfectionnement du Palau de les Arts de Valencia.

Sans musique et sans art, la vie serait une erreur. Grâce à la musique, j'ai grandi comme artiste et comme être humain.

Je suis heureuse de pouvoir transmettre près de quarante ans d'apprentissage à de futurs chanteurs professionnels. C'est un défi important de pouvoir apporter tout ce que j'ai appris et passer le relais de l'essence de la musique classique aux nouvelles générations.



Teresa Catalán



EU

Konpositorea. Konposizio eta instrumentazioko katedradun emeritua, Madrilgo Goi-Mailako Errege Musika Kontserbatorioa.

Musikaren edertasuna ez da sentiarazten diguna, irakasten diguna baizik.

Musika garrantzitsua da, mundua eraikitzen duen hizkuntza delako, berezko eredu adierazgarria, sinbolikoa, transzendentea... entzute afektiboan, sentsualean bakarrik konformatzen ez den ezagutza-modu bat, zientzia eta filosofia ere inplikatzeko dituelako. Musika arte gisa gozatzea, ezagutzea eta sortzea da, entzumen kontzienteak hala eskatzen baitu.

ES

Compositora. Catedrática emérita de Composición e Instrumentación, Real Conservatorio Superior de Música de Madrid.

La maravilla de la música no es lo que nos hace sentir, es lo que nos enseña.

La música es importante porque es un lenguaje que construye mundo, un modelo propio representativo, simbólico, trascendente... una forma de conocimiento que no se conforma sólo en la escucha afectiva, sensual, porque también implica ciencia y filosofía. Disfrutar de la música como arte es conocer y crear, porque la audición consciente lo exige.

FR

Compositrice. Professeure émérite en Composition et Instrumentation, Conservatoire Supérieur Royal de Musique de Madrid.

Ce qu'il y a de merveilleux dans la musique n'est pas ce qu'elle nous fait sentir, mais ce qu'elle nous enseigne.

La musique est importante parce qu'elle est un langage qui construit le monde, un modèle représentatif, symbolique, transcendant... une forme de connaissance qui ne repose pas seulement sur l'écoute affective et sensuelle, car elle implique aussi la science et la philosophie. Apprécier la musique en tant qu'art, c'est connaître et créer, parce que l'écoute consciente l'exige.



Conchi de la Rúa Vaca



EU

UPV/EHUko Antropologia Fisikoko
katedraduna.

Naturarekiko oreka eta lankidetzak funtsezkoak izan dira gure eboluzio-
arrakastarako. Gure espeziearen
etorkizuna horren araberakoa izango da,
eta gure esku dago!

Nire ikerketaren erronketako bat da giza
aniztasuna nola hazi den ulertzea eta
gizateria familia biologiko handi bat dela
erakustea, non denok garen senide nahiz
eta denak desberdinak garen.

ES

Catedrática Antropología Física, UPV/EHU.

El equilibrio con la naturaleza y la
cooperación han sido claves para nuestro
éxito evolutivo. Nuestro futuro como especie
depende de ello y, ¡está en nuestras manos!

Uno de los retos de mi investigación
es comprender cómo se ha gestado la
diversidad humana y mostrar que la
humanidad es una gran familia biológica,
donde todos somos parientes, pero todos
somos diferentes.

FR

Professeure d'université en Anthropologie
physique, Université du Pays Basque.

L'équilibre avec la nature et la coopération
ont été essentiels pour le succès de notre
évolution. Notre avenir en tant qu'espèce en
dépend et il est entre nos mains!

L'un des enjeux de mes recherches est de
comprendre comment s'est créée la diversité
humaine et de montrer que l'humanité est
une grande famille biologique, dans laquelle
nous sommes tous liés mais tous différents.



Maria Jesus Esteban Galarza



EU

Matematikaria, CNRS-Ikerketa Zientifikoen Zentro Nazionaleko ikerketa zuzendaria, Paris, Frantzia.

Beti gustatu izan zait ezezagunari aurre egitea eta problemak ebaztea.

Arteak eta Matematikak oso bikote polita eta interesgarria osatzen dute. Sorkuntza mailan, bietan topatu behar dira ideia eta forma berriak. Beraz, niretzat, lotura hori hor egon da beti.

ES

Matemática, directora de investigación en el CNRS-Centro Nacional para la Investigación Científica, París, Francia.

Siempre me ha gustado despejar incógnitas y resolver problemas.

Creo que el arte y las matemáticas hacen una bonita e interesante pareja. Ambas comparten el proceso creativo en el que hay que buscar nuevas ideas y formas. Para mí siempre ha existido esa conexión.

FR

Mathématicienne, directrice de recherche au CNRS-Centre national de recherche scientifique, à Paris.

J'ai toujours aimé élucider des mystères et résoudre des problèmes.

Je pense que l'art et les mathématiques forment un couple magnifique et intéressant. Tous deux partagent le processus créatif dans lequel il faut chercher de nouvelles formes et idées. Pour moi, il y a toujours eu cette connexion.



Eva Ferreira García



EU

Ekonomia aplikatuko katedradun, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, UPV/EHU.

Gizarte aurreratu batek arazo korapilatsuentzako erantzunak behar ditu. Erantzun horietara iristeko jakintza, komunikazioa eta lankidetzak behar dira.

Nabigatzea Estatistikaren antzekoa den arte bat da eta Estatistika da nire unibertsitate-pasioa. Bietan derrigorrezkoa da informazioa haztatzea edo neurtzea, ez dago ziurtasunik eta probabilitate-eremuetan mugitzen gara; buruan arazo bat daukagula abiatzen gara eta irtenbideen bilaketan ustekabeko tresna eta emaitzak agertzen dira, eta aurreikusi ez genituen geldialdiak egitera eta beste begirada batzuekin konektatzera behartzen gaituzte. Horrela, taldean ikasten dugu eta zalantza egoeratan aurrera egiteko aukera ematen diguten tresnak hobetzen ditugu.

ES

Catedrática de Economía Aplicada, rectora de la Universidad del País Vasco, UPV/EHU.

Una sociedad avanzada requiere respuestas a problemas complejos. A ellas llegaremos con conocimiento, comunicación y colaboración.

Navegar es un arte que se asemeja a la Estadística, mi pasión universitaria. En ambas es necesario ponderar la información, no hay certezas y nos movemos en zonas de probabilidad; arrancamos con un problema en mente y en la búsqueda de soluciones aparecen nuevos instrumentos y resultados inesperados, que nos invitan a hacer paradas no previstas, a conectarnos con otras miradas. Así aprendemos en equipo y mejoramos los instrumentos que nos hacen avanzar en escenarios inciertos.

FR

Professeure d'université en Économie appliquée, rectrice de l'Université du Pays Basque.

Une société avancée exige des réponses à des problèmes complexes. Ces réponses, nous les obtiendrons grâce au savoir, à la communication et à la collaboration.

La navigation est un art qui s'apparente aux statistiques, ma passion universitaire. Dans les deux cas, il faut peser les informations, il n'y a pas de certitudes et on évolue dans des zones de probabilité ; nous commençons avec un problème en tête et, dans la recherche de solutions, de nouveaux instruments et des résultats inattendus apparaissent, qui nous invitent à faire des arrêts imprévus, à nous connecter avec d'autres perspectives. C'est ainsi que nous apprenons en équipe et améliorons les instruments qui nous font avancer dans des scénarios incertains.



Esther Ferrer



EU

Artista.

Niretzat artea sortzea ezagutza-bide bat da, sekula pentsatuko ez nituzkeen lurraldeetan barrena naramana.

Idea bat dudanean, ikertu, bilatu, hausnartu eta bide bat egiten dut. Aurrera egin ahala jendea aurkitzen dut bidean eta topaketa horiek guztiak ere ikasbidea dira niretzat. Gainera, egite hutsak, batzuetan, oker egitea ere badakarrenez, oker batzuei esker hainbat leku eta bide ezagutzeko aukera izan dut, oker hori egin ezean nekez iristeko moduko tokiak. Okerrak muga horiek gainditzeko bidea ematen dizu.

ES

Artista.

Para mí la creación artística es una vía de conocimiento que me lleva a territorios que nunca hubiera pensado penetrar.

Cuando tengo una idea investigo, busco, reflexiono y hago un camino. En ese camino te encuentras con otras personas que están haciendo su propio camino y se cruzan en el tuyo y a través de estas experiencias aprendes. Además, el hecho de hacer, de crear, supone, a veces, cometer errores. Hay errores que me han llevado a sitios que nunca hubiera alcanzado de no haberlos cometido. El error te obliga a ir más allá de tus límites.

FR

Artiste.

Pour moi, la création artistique est une voie de connaissance qui m'emmène vers des territoires où je n'aurais jamais pensé pénétrer.

Quand j'ai une idée, j'étudie, je cherche, je réfléchis et je trace un chemin. Sur ce chemin, vous rencontrez d'autres personnes qui tracent leur propre chemin et croisent le vôtre et grâce à ces expériences, vous apprenez. En plus, l'acte de faire, de créer, implique parfois de commettre des erreurs. Il y a des erreurs qui m'ont menée à des endroits que je n'aurais jamais atteint si je ne les avais pas commises. L'échec vous oblige à dépasser vos limites.



Begoña García-Zapirain



EU

Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateko katedraduna eta Ingeniaritza Biomedikoaren koordinatzailea. eVIDA taldeko ikertzaile nagusia.

Nire pasioen arteko oreka bila: nire familia eta ikerketa.

Ikerketa gauza liluragarria da. Gure gizarteko erronkak aurkitzea eta irtenbideak modu sortzailean eta erabilgarrian ematea da ikerketa-karrerari zentzua ematen dion arrazoia.

ES

Catedrática y Coordinadora de Ingeniería Biomédica, Facultad de Ingeniería, Universidad de Deusto. Investigadora Principal del equipo eVIDA.

Buscando el equilibrio entre mis pasiones: mi familia y la investigación.

La investigación es apasionante. Encontrar retos en nuestra sociedad y abordarlos con soluciones creativas y útiles es la razón que da sentido a la carrera investigadora.

FR

Professeure et coordinatrice du génie biomédical, Faculté d'ingénierie, Université de Deusto. Chercheuse principale de l'équipe eVIDA.

En cherchant l'équilibre entre mes passions: ma famille et la recherche.

La recherche est passionnante. Trouver les défis de notre société et y répondre avec des solutions créatives et utiles est la raison qui donne du sens à une carrière de chercheur.



Aran Garcia-Lekue



EU

Fisikaria, Ikerbasque ikertzailea.
Donostia International Physics Center
(DIPC).

Naturaren legeekin zein itsasoko olatuekin
jolasean... esfortzua, saria eta gozamena
dira nire bidelagun.

Nire aisialdian asko gustatzen zait itsasora
hurbiltzea, igeri egitera edo surfean
aritzera. Surfak badauka antzekotasun
handi bat ikerketa zientifikoarekin. Alde
batetik, pazientzia handia izan behar da
olatu ona noiz helduko den itxaroteko,
aurre egiten ere jakin behar da, prestatu
egin behar gara olatua surfeatzeko unea
heltzen denerako, eta olatua harrapatzen
dugunean olatuaz disfrutatzeak gai izan
behar gara. Olatua harrapatzeak ematen
dizun plazerak soberan konpentsatzen
du inbertitutako denbora eta esfortzua,
zientzian bezala.

ES

Física. Investigadora Ikerbasque.
Donostia International Physics Center
(DIPC).

Jugando con las leyes naturales y las olas... el
esfuerzo, la recompensa y el placer son mis
compañeros de viaje.

En mi tiempo de ocio me gusta mucho
acercarme al mar, a nadar o surfear. El surf
tiene una gran similitud con la investigación
científica; por una parte, requiere de gran
paciencia para esperar a que llegue la ola
buena y es preciso saber avanzar y preparar-
se para surfear esa ola cuando llegue el mo-
mento. Cuando cogemos la ola tenemos que
ser capaces de gozar y de disfrutar a tope de
ella. A pesar de la espera y de la frustración,
el placer y el disfrute que te produce coger
la ola compensa con creces el tiempo y el
esfuerzo invertido, como en la ciencia.

FR

Physicienne. Chercheuse à Ikerbasque,
Donostia International Physics Center
(DIPC).

En jouant avec les lois naturelles et les
vagues ... l'effort, la récompense et le plaisir
sont mes compagnons de voyage.

Pendant mon temps libre, j'aime beaucoup
aller à la mer, nager ou surfer. Le surf pré-
sente une grande similitude avec la recher-
che scientifique ; d'une part, il faut beaucoup
de patience pour attendre que la bonne
vague arrive, et il faut aussi savoir avancer et
se préparer à surfer sur cette vague le mo-
ment venu. Lorsqu'on prend la vague, il faut
pouvoir en profiter et en profiter pleinement.
Malgré l'attente et la frustration, le plaisir
et la jouissance que procure le moment où
on prend la vague compensent largement le
temps et les efforts investis, tout comme en
science.



Sonia Gaztambide Sáenz



EU

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzuko burua, Biocruces Bizkaia; UPV/EHUko Medikuntza irakasle titularra.

ES

Jefa Servicio Endocrinología y Nutrición, Hospital Universitario Cruces, Biocruces Bizkaia; profesora titular Medicina, UPV/EHU.

FR

Responsable du Service d'Endocrinologie et Nutrition de l'hôpital universitaire de Cruces, Biocruces ; maîtresse de conférences en médecine, Université du Pays Basque.

Zientzia kultura da, eta kultura bizitza.

Zientzia edo kultura zientifikoa eta arte eta letren kultura gure bizitzaren funtsezko zati bat direla ulertu behar dugu. Batzuetan, gure lan-bizitzaren zati, baina baita gure gozamen eta entretenimenduaren zati ere. Bizitza, lana ez ezik, dibertimendua ere badelako.

La ciencia es cultura y la cultura es vida.

Tenemos que contemplar que tanto la cultura científica como la cultura artística y la cultura literaria son una parte esencial de nuestra vida, tanto laboral como del disfrute y del entretenimiento. La vida no solamente es trabajo, también es divertimento.

La science est culture et la culture est vie.

Nous devons considérer que la culture scientifique, la culture artistique et la culture littéraire constituent une partie essentielle de notre vie, tant au niveau du travail que du plaisir et du divertissement. La vie n'est pas seulement travail, elle est aussi plaisir.



Naroa Ibarretxe Bilbao



EU

Neuropsikologoa. Irakasle titularra eta ikerlaria, Deustuko Unibertsitatea.

ES

Neuropsicóloga. Profesora titular e investigadora, Universidad de Deusto.

FR

Neuropsychologue. Maîtresse de conférences et chercheuse, Université de Deusto.

Gure garuna, itsasoa bezain zoragarria¹.

Batzuetan bare eta argi, beste batzuetan ordea, nahasia.
Batzuetan, baina ez beti, hor dago gakoa.
Itsasoa eta bere olatuak etengabe aldatzen eta mugitzen ari dira. Noiz murgildu, guk erabakitzen dugu.

¹ adj. Zoratzen edo liluratzen duena.

Nuestro cerebro, tan maravilloso¹ como el mar.

A veces en calma y despejado, pero otras veces revuelto. A veces, pero no siempre, ahí está la clave. El mar y las olas se mueven y cambian sin cesar. Cuando sumergirnos, nosotras y nosotros lo decidimos.

¹ adj. Que fascina o deslumbra.

Notre cerveau, aussi merveilleux¹ que la mer.

Parfois calme et clair, mais parfois agité. Parfois, mais pas toujours, c'est ça la clé. La mer et les vagues bougent et changent sans cesse. C'est nous qui décidons quand plonger.

¹ adj. Qui suscite l'admiration ou éblouit.



María Iraburu Elizalde



EU

Biokimika eta Biologia molekularreko katedraduna, Nafarroako Unibertsitateko errektorea.

Zientzian eta Naturan mundu eder eta konplexu bat topatzen dut, gizatasunean eta elkartasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko aukerez josia.

Natura eta zientzia irrikaz maite ditut eta horietan bilatzen dut soluzioak aurkitzeko inspirazioa. Soluzio horiek ez dira erabatekoak, ordea, beste zientzia batzuen, eta zehazkiago giza zientzien, ekarpen aberatsen beharra ere badutelako, eta ekarpen horiek guztiak mundu solidarioago eta konprometituago bat, azken batean mundu gizatiarrago bat eraikitzeko lagungarri izan daitezke guretzat.

ES

Catedrática de Bioquímica y Biología Molecular, rectora Universidad de Navarra.

En la ciencia y en la naturaleza encuentro un mundo bello y complejo, lleno de posibilidades para construir una sociedad más humana y solidaria.

Tengo pasión por la naturaleza y por la ciencia, y en ellas me inspiro para encontrar soluciones que, sin ser absolutas porque necesitan de la respuesta y aportación de otras ciencias y, especialmente, de las humanidades, nos puedan ayudar a construir un mundo más solidario, más comprometido y, en definitiva, más humano.

FR

Professeure d'université en Biochimie et Biologie moléculaire, rectrice de l'Université de Navarre.

Dans la science et dans la nature, je trouve un monde beau et complexe, plein de possibilités pour construire une société plus humaine et solidaire.

Je suis passionnée par la nature et par la science et je m'en inspire pour trouver des solutions qui, sans être absolues car elles nécessitent la réponse et la contribution d'autres sciences et, en particulier, des sciences humaines, peuvent nous aider à construire un monde plus solidaire, plus engagé et, finalement, plus humain.



Mariasun Landa



EU

Idazlea. UPV/EHUko Literaturaren didaktikako irakasle titular ohia.

ES

Escritora. Exprofesora titular Didáctica de la Literatura, UPV/EHU.

FR

Écrivaine. Ex-maîtresse de conférences en Didactique de la Littérature, Université du Pays Basque.

Literaturak barneko ate eta leihoak zabaltzen dizkigu.

Sailkatzen, hedatzen edo esaten zailak diren ate eta leihoak zabaltzen dizkigu gure barruan literaturak. Bakoitzak daki irakurketa batek norbera zenbateraino osatzen eta aldatzen duen eta ezaugarritzen duen, hezten duen eta aldi berean dibertitzen duen.

La literatura abre puertas y ventanas interiores.

La literatura abre puertas y ventanas interiores que son difíciles de clasificar. Cada uno sabe hasta qué punto una buena lectura nos forma o nos deforma, nos caracteriza, nos instruye o nos divierte.

La littérature ouvre des portes et des fenêtres intérieures.

La littérature ouvre en nous des portes et des fenêtres difficiles à classer. Chacun sait à quel point une bonne lecture nous forme ou nous déforme, nous caractérise, nous instruit ou nous amuse.



Helena Matute Greño



EU

Deustuko Unibertsitateko Psikologia
Esperimentaleko katedraduna.

Ez gaude errealitatea ezagutzeko prest,
hartara egokitzeak baizik.

Ezagunena ez den psikologiaren adar
batean aritzen naiz. Oinarrizko ikerketa
egiten dut buruak nola funtzionatzen
duen, eta giza portaera eta giza garunak
nola funtzionatzen duten aztertzeak.
Esperimentuetan ikusten ari gara
pertsonak akats asko egiten ditugula
gure arrazoibidean, gure pertzepzioan,
eta abar. Eta gainera oso erraza da nola
jokatuko dugun aldeaz aurretik jakitea,
harri berdinekin egiten baitugu estropezu
guztiok.

ES

Catedrática de Psicología Experimental,
Universidad de Deusto.

No estamos preparados para conocer la
realidad sino para adaptarnos a ella.

Me dedico a una parte de la psicología
que no es muy conocida; investigo la parte
más básica del cerebro: cómo funcionan la
mente y el comportamiento humano. En
los experimentos que realizamos vemos
que las personas cometemos muchos
errores en nuestro razonamiento y en
nuestra percepción, y además somos muy
predecibles, pues tropezamos todos en las
mismas piedras.

FR

Professeure d'université en Psychologie
expérimentale, Université de Deusto.

Nous ne sommes pas préparés pour connaître
la réalité mais pour nous adapter à elle.

Je me consacre à une partie peu connue
de la psychologie ; je fais des recherches
sur la partie la plus fondamentale du
cerveau : le fonctionnement de l'esprit et du
comportement humain. Dans les expériences
que nous réalisons, nous constatons que
les personnes commettent de nombreuses
erreurs de raisonnement et de perception, et
qu'elles sont aussi très prévisibles, puisqu'elles
trébuchent toutes sur les mêmes pierres.

Carmen Mijangos Ugarte



EU

CSICeko ikerketa-irakaslea, Polimeroen Zientzia eta Teknologia Institutua.

Zientziak, plurala.

Zientzia gizartearen aurrerabidearen motorra da. Zientziak gizarte-ongizatean lagundu behar du. Zientzia ez da inprobisatzen. Zientzia denboran zehar mantendu behar da. Zientziak bikaintasuna bilatu behar du. Zientziak ikertzaile guztien ahalegin pertsonal eta kolektiboa eskatzen du. Emakume zientzialariek maila guztien % 50a bete behar dute, baita erabakigunetan ere.

ES

Prof^a de Investigación, Instituto de Ciencia y Tecnología de Polímeros, CSIC.

Las Ciencias, femenino plural.

La Ciencia es el motor del Progreso de la Sociedad. La Ciencia debe de contribuir al bienestar social. La Ciencia no se improvisa. La Ciencia tiene que ser sostenida en el tiempo. La Ciencia debe de buscar la excelencia. La Ciencia requiere un esfuerzo personal y colectivo de todos los investigadores e investigadoras. Las científicas deben ocupar el 50%, en todos los niveles y en la toma de decisiones.

FR

Professeure, Institut des sciences et technologie des polymères, CSIC (Conseil supérieur de recherches scientifiques).

Les Sciences, féminin pluriel.

La science est le moteur du progrès de la société. La science doit contribuer au bien-être social. La science ne s'improvise pas. La science doit perdurer dans le temps. La science doit rechercher l'excellence. La science nécessite un effort personnel et collectif de la part de tous les chercheurs, hommes et femmes. Les femmes scientifiques doivent être présentes à 50 % à tous les niveaux et dans toutes les prises de décision.



Oihana Otaegui Madurga



EU

Ingeniaria (Automatika eta Industria Elektronikak), Garraio Sistema Adimentsuen Saileko zuzendaria, VICOMTECH.

Zientzia eta Ingeniaritza. Ezagutu eta Egin.
Mundu hobe a egiteko aukera ematen duen etorkizuna.

Jakintza zientifikoa eguneroko bizitzan aplikatzea da nire pasioa. Ingeniaria naiz eta nire lanean adimen artifizialeko sistemak garatzen ditut eguneroko arazoak konpontzearen. Zientziaren eta haren aplikazioaren historia aurkikuntza- eta aurrerapen-historia zoragarria izan da mendentan, gizakion bizitza hobetzea ekarri duena.

ES

Ingeniera (Automática y Electrónica Industrial), directora Dpto. Sistemas Inteligentes de Transporte, VICOMTECH.

Ciencia e Ingeniería. Conocer y Hacer.
Un horizonte de posibilidades para hacer un mundo mejor.

La aplicación del conocimiento científico a la vida cotidiana es mi pasión. En mi trabajo desarrollo sistemas de Inteligencia Artificial para solucionar los problemas del día a día. La ciencia y su aplicación nos han enseñado durante siglos una maravillosa historia de descubrimientos y avances que han hecho que la vida del ser humano sea mejor.

FR

Ingénieure (Automatique et Électronique industrielle), Directrice du département Systèmes intelligents de transport, VICOMTECH.

Science et Ingénierie. Connaître et Faire.
Un horizon de possibilités pour créer un monde meilleur.

L'application des connaissances scientifiques à la vie quotidienne est ma passion. Dans mon travail, je développe des systèmes d'intelligence artificielle pour résoudre les problèmes du quotidien. La science et ses applications nous ont enseigné pendant des siècles une merveilleuse histoire de découvertes et de progrès qui ont rendu la vie humaine meilleure.



M^a Teresa Telleria Jorge



EU

Ad honorem ikerketa-irakaslea, Madrilgo Errege Lorategi Botanikoa, CSIC. Idazlea.

Biodibertsitatea esploratzea, aurkitzea eta deskribatzea izan dut erronka, natura izan delarik laborategi.

Gure buruari galdetu diezaiokegu, zertarako balio dute horrelako azterlanek? Biodibertsitatearen krisi baten barruan bizi gara, ekosistemen arloan zein espezieen arloan gertatzen ari den krisi batean. Biodibertsitatearen galera hain da handia ezen seigarren suntsipen bati buruz ere hitz egiten ari garen jada. Nola irten gaitezke krisi honetatik? Azterketarekin eta ikerketarekin, funtsean. Bizitzak nola eboluzionatzen duen eta gure planetak nola funtzionatzen duen jakin behar dugu dibertsitate biologikoaren galera arintzeko.

ES

Prof^a de Investigación ad honorem, Real Jardín Botánico de Madrid, CSIC. Escritora.

Explorar, descubrir y describir la biodiversidad con la naturaleza como principal laboratorio, ha sido mi gran reto.

Podríamos preguntarnos: ¿para qué sirven este tipo de estudios? Vivimos inmersos en una crisis masiva de biodiversidad, de tal envergadura que se habla ya de una “sexta extinción”. Para llegar a paliarla, la investigación y el estudio se tornan imprescindibles. Mitigar los actuales niveles de destrucción tanto genética, como de especies, de ecosistemas y de biomas requiere un conocimiento a fondo de cómo evoluciona la vida y cómo funciona el planeta.

FR

Professeure ad honorem, Jardin Botanique Royal de Madrid, CSIC (Conseil supérieur de recherches scientifiques). Écrivaine.

Mon grand défi, ça a été d'explorer, de découvrir et de décrire la biodiversité avec la nature comme principal laboratoire.

On pourrait se demander : à quoi servent ces types d'études ? Nous vivons plongés dans une crise massive de la biodiversité, d'une telle ampleur qu'on parle déjà d'une « sixième extinction ». Pour y remédier, la recherche et l'étude deviennent essentielles. Atténuer les niveaux actuels de destruction de la génétique, des espèces, des écosystèmes et des biomes nécessite une connaissance approfondie de la façon dont la vie évolue et du fonctionnement de la planète.



Ana Zubiaga Elordieta



EU

Genetika arloko katedraduna, UPV/EHU.

Zientzia munduan badugu erronka
guztiz erakargarria:
hipotesi on bat adieraziz
sortzea gero tesia.
Aurkikuntza asko egiten dugu,
nahiz eta izan urriak,
ta horrela goaz apurka- apurka
eraikiz jakituria.

Konprenitzea zer den bizitza
izan ohi da gure ardura,
iritsiz gero Eureka unera
akabo gure tristura.
Punta- puntako teknologia
daukagu orain eskura.
Baina betire ez dezagun gal
lurrarekiko lotura.

Umetan nire lagunak ziren
kirikolatz zein ahari,
Natura maitatzen nuen eta
hura zen nire gidari.
Orain zelulak eta geneak
gustura ikertzen ari.
Zalantza gabe, asko diot zor
baserriko munduari.

ES

Catedrática Área Genética, UPV/EHU.

Atractivo reto el que se nos presenta
en el mundo de la ciencia:
expresar una hipótesis que luego
una tesis evidencia.
Aun siendo limitados, ahondamos
en los descubrimientos,
para así construir poco a poco
el conocimiento.

Comprender qué es la vida
es nuestra faena,
y que llegados a Eureka
se acaben nuestras penas.
Disponemos ahora
de tecnología punta,
sin perder nunca el vínculo
que a la tierra nos junta.

Erizos y carneros eran de niña mis amigos,
amaba la naturaleza y ella me mostraba
cuáles eran los caminos.
Ahora investigo células
y genes ricamente.
Sin duda, estoy en deuda
con el caserío y su ambiente.

FR

Professeure d'université Département
Génétique, Université du Pays Basque.

Quel défi intéressant nous offre
le monde de la science :
formuler une hypothèse
qui se confirme par une thèse.
Bien que limités, nous avançons
dans la découverte,
et peu à peu nous construisons
la connaissance.

Comprendre la vie
est notre labeur,
une peine qui finit
quand Eureka nous réunit.
Nous disposons aujourd'hui
des meilleures technologies
sans jamais perdre le lien
qui à la terre nous unit.

Hérissons et moutons étaient mes amis quand
j'étais petite fille,
j'aimais la nature et elle me montrait
quels étaient les chemins.
Maintenant j'ai le plaisir d'étudier
des cellules et des gènes.
Aujourd'hui, j'en suis certaine,
je dois beaucoup à la ferme et à la vie qu'on y mène.